

LITERATURA. Napoleonek Bailenen galdutako batailan girotua da

Baltasar Porcelek irabazi du Kataluniako letren saria

‘L’emperador o l’ull del vent’ eleberri historikoa saritu dute epaileek



TONI GARRIGA / EFE

Baltasar Porcel idazlea Ramon Llull literatur saria jasotzen, herenegun gauean.

Agentziak | BARTZELONA

Baltasar Porcelek idatzitako *L’emperador o l’ull del vent* nobelak eskuratu du Ramon Llull Kataluniako letren saria. Mallorcako idazlea «biziki pozik» azaldu zen epaimahaiaren erabakia jakin zuenean, eta sari horrek idazten jarraitzeko grina piztu diola adierazi zuen. «Nobela historiko bat idatzi dut, baina aldi berean, existentzialista ere badela esan dezakegu. Alegia, jendearen bizipenak eta istorioak ere kontatu ditudala, ezinbestekoak baitira edozein garai historiko ulertzeko», azpimarratu zuen Porcelek.

L’emperador o l’ull del vent eleberriak Honore Grapain Napoleonekin batera aritutako soldaduen bizitza du abiapuntu. Frantziarrek Bailenen galdutako bataila kontatzen du Porcelek. Bataila horretan hainbat soldadu hartu zituzten preso, eta horietarik asko goseak hil ziren. «Gerraren gordintasuna agerian utzi nahi izan dut, eta horretarako oso pasarte gogorak deskribatu ditut», azaldu zuen idazleak. Hala ere, gerraren gordintasuna hainbat istorio politiek samurtzen dutela argi utzi zuen Porcelek: «Gerran dabilen soldadu baten eta emakume baten artean maitasun is-

BALTASAR PORCEL

Idazlea

«Chateaubriand eta Alexis de Tocqueville oso erreferentzia garrantzitsuak dira liburuan»

torio bat sortzen da, eta horrek nobela berean gai anitz jorratzeko aukera eman dit».

Gai horiek guztiak Chateaubriand pentsalariaren ideia baten inguruan dihardute. Alegia, gizabanakoek bi aukera dituztela: bizitza hutsala edo ameskerria. «Chateaubriand eta Alexis de Tocqueville pentsalariak erreferentzia garrantzitsuak izan dira liburu honetan. Izan ere, beraien pentsamendua eta Napoleonena kontrajarri nahi izan ditut», onartu zuen Ramon Llull sariaren irabazleak.

Urte askotako lanaren fruitua

L’emperador o l’ull del vent idaztea aspaldi zuen buruan Baltasar Porcelek, eta urte askotako lana izan dela adierazi zuen: «Orain dela 35 urte Cabrera ezagutu nuen, hau da, soldadu frantziarrak gatibu hartu zituzten irla. Niretzat oso esperientzia gogorra izan zen. Izan ere,

leku hartan hainbeste hildako izan zirela pentsatzeak uste baino gehiago izutu ninduen. Orduan bururatu zitzaidan nobela idazteko ideia».

Epaimahaiak, hain zuzen ere, Porcelek nobela egiteko lan asko egin duela azpimarratu zuen. «Ondo landutako eleberri bat dela esan dezakegu. Nobela historiko bat da, baina baita nobela erromantiko, existentzialista eta intrigazko bat ere. Azken batean, lan eskerga eskatzen duen liburu bat», azaldu zuen David Castillo kazetari eta epaimahaikideak.

Lan horren adibide garbiena Porcelek nobelan erabiltzen dituen literatur erreferentzia andana dira. Besteak beste, Chateaubriand, Stendhal, Balzac eta Tolstoi aipatzen ditu. Horiekin batera, Goyaren *Desastres de la Guerra* pintura gerraren zentzugabekeriaren ispilutzat erabiltzen du.

Pere Gimferrer epaimahaikideak, berriz, liburuaren «indarra» eta «bizitasuna» goraipatu zituen. «Porcelek maila handiko bi eleberri idatzi ditu denbora gutxian: laz, *El cor del Senglar* kaleratu zuen, eta aurten *L’emperador o l’ull del vent*. Maila horretako bi nobela idaztea oso jende gutxiren eskuetan dago», adierazi zuen Gimferrerek.

LABURAEAN

DANTZA

Elena Cordoba madrildarrak ‘Sin correa’ koreografia berria aurkeztuko du gaur eta etzi La Fundicionen

Joan den urrirako iragarritako agerraldia lesio baten ondorioz bertan behera utzi beharra izan ondoren, azkenean aukera izango da Elena Cordobaren konpainia Bilboko La Fundicion aretoan ikusteko. Madrilgo koreografoak *Sin correa* ikuskizun berria aurkeztuko du. Gaixotasunaren gaia «bilatu» du Cordobak lan honetarako: «Gaixotasunari buruz, edo hobeto esanda, gaixotasunaren ondoren geratzen denari buruz ikasi dudana da obra honen gaia, bizitasunaz eta denbora aprobetxatzeko gogoaz», adierazi du Cordobak. Rodrigo Garciak idatzi ditu obrako hitzak, eta musika osatzeko berriz, egile klasikoak (Mahler), minimalismoaren maisuak (Stockhausen) zein pop eta rockaren talde ezagunak (John Cage, Sonic Youth, Pixies, Van Morrison) erabili ditu.

MUSIKA

Negu Gorriak-en Donostiako kontzerturako sarrerak agortu dira

Hamar egunean saldu dira Negu Gorriak taldeak Donostian emango duen kontzerturako salgai jarritako 12.000 sarrerak, Esan Ozenki disketxeak azaldu duenez. Baionako emanadira berriz, zenbait sarrera geratzen dira oraindik. Zalantzarik gabe, Irungo taldearen berragerpenak sekulako ikusmina sortu du. Kontzertuak otsailaren 23an eta 24an izango dira.

MUSIKA

Halloween taldeak gaur Bergaran eman behar zuen kontzertua bertan behera geratu da

Bateria joleak izan duen istripua dela medio, Halloween taldeak gaur Bergarako Jam aretoan eman behar zuen kontzertua martxoaren 24ra atzeratu dute. Ondorioz, Alemaniako heavy taldeak Euskal Herrian dituen jarraitzaileek bi hilabete itxaron beharko dute oraindik Halloween-en *The dark ride* disko berriko kantuak zuzenean entzuteko.

PENTSAMENDUA

Sabino Arana Fundazioak mende hasierako ‘Hermes’ aldizkaria berreskuratu du

Hermes pentsamendu eta historia aldizkaria kaleratzen hasi da Sabino Arana Fundazioa. Mende hasieran sortutako aldizkariaren izenburu bera du argitalpen berriak, hain zuzen ere haren «espirituan» oinarrituko baita. *Hermes*-ek «euskal nortasun nazionalaren zerbitzura eta beti ere giza eskubideen errespetutik» jokatu duela adierazi zuten atzo Txema Montero eta Koldo Mediavilla aldizkariak zuzendariek. Hiruhilabetekariaren zero aleak jorratzen duen gai nagusia nazionalismoa-demokrazia binomioa da, eta besteak beste Pere Esteve eta Michael Keating-en artikulua bildu ditu.

LASARTE-ORIA

TENTAZIOA & TRICICLE

“ez da hain erraza”

2.001 / urtarrilak 27 / 20:00

SARRERA: 1.000 pzta.

MANUEL LEKUONA
KULTUR ETXEA

EUSKAL ANTZOKI SAREA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultur Departamentua / Lasarte-Oriako Udala

